

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

737

EBAZPENA, 2020ko urtarrilaren 15ekoa, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Zornotzako «Martija» eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziari buruzko ingurumen-txosten estrategikoa.

AURREKARIAK

2019ko abuztuaren 23an, Zornotzako Udalak ingurumen-organoari eskaera egin zion «Martija» eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziari buruzko ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura izapidetzen hasteko, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean xedatutakoaren arabera. Eskaerarekin batera, zenbait agiri aurkeztuziren, hala nola Planaren zirriborroa eta ingurumen-dokumentu estrategikoa, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. eta 29. artikuluetan xedatutako edukia zuena.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 30. artikulua aplikatuta, 2019ko urriaren 29an, Eusko Jaur-laritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak kontsulta-izapidea egin zien eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei; jasotako erantzunen emaitzak eta edukia espedientearen sartu dira. Era berean, Zornotzako Udalarari izapidearen hasieraren berri eman zitzaion.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu da ingurumen-organoak baduela ingurumen-ingurumen-txostenestrategikoa egiteko behar beste judizio-elementu, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 30. artikuluari jarraikiz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan ezarritakoaren arabera, haren helburua da ingurumenean ondorio esanguratsuak izan ditzaketen planen, programen eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea; horrela, ingurumenaren babes-maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzeko helburuarekin.

Era berean, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 42. artikulua arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioek era egokian bermatuko dute, besteak beste, plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko eraginaren analisia, betiere aukerarik egokienak hautatzeko asmoz, eta aintzat hartuta hor gauzatuko diren jardueren metatze- eta sinergia-ondorioak.

«Martija» eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Berezia (aurrerantzean, Plana) abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.2 artikulua kasuetan sartzen da; bertan xedatzen da zein diren ingurumen-organoak egindako ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatutik pasa behar diren planak eta programak, honako hauek zehazteko: planak edo programak ez duela eragin nabarmenik ingurumenean, ingurumen-txosten estrategikoan ezarritakoaren arabera, edo planaren edo programaren gaineko ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin beharra, ingurumenerako eragin nabarmenak ekar ditzakeelako. Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egiteko prozedura 29. artikulutik 32. artikulura bitartean arautzen da, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen V. eranskinean ezarritako irizpideen arabera.

Dokumentazio teknikoa eta Planaren ingurumen-ebaluazioaren espedienteko txostenak aztertuta, eta ikusirik hasierako dokumentu estrategikoa zuzena dela eta indarreko araudian ezarritako alderdien arabera dela, ingurumen-txosten estrategiko hau ematen du Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak –eskumena duen organoa baita otsailaren 27ko 3/1998 Legearen eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko den apirilaren 11ko 77/2017 Dekretuaren arabera–. Txostenak Planaren proposamenean ingurumen-arloko alderdiak sartzearen alde egiten du, eta Plana aplikatzearen ondorio adierazgarrien gaineko iritzia ematen, baita ingurumen-ondorioetarako soilik sartu behar diren azken zehaztapenen inguruan ere.

Hauek guztiak aztertu dira: 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Herriko Ingu-
ruiroa Babestekoa; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 77/2017 Dekretua, apirilaren 11koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publiko Araubide Juridikoari buruzkoa, eta aplikatzekoak diren gainerako arauak. Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Zornotzako «Martija» eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziari buruzko ingurumen-ebaluazio estrategikoa formulatzea, Zornotzako Udalak sustatuta, jarraian jasotzen diren baldintzetan:

A) Planaren deskribapena: helburuak eta jarduketak.

Plana bizitegi-erabilerako hiri-lurzoru finkatuan egin nahi da. Azalera 707 m²-koa da, eta titulartasun pribatuko lurzati bakarra (Sabino Arana kalea 32). Etxebizitza bakarra dago, kontserbazio-egoera kaskarrean; Martija etxea esaten diote. Eraikinak hiru solairu ditu zoru-mailatik gora; bizitegiak dira guztiak ere. Beheko solairua lokaletara eta aparkalekuetara bideratuta dago, eta lorategi pribatu komunitario batez inguratuta dago. Eraikina inor gabe dago egun.

Indarrean dagoen plangintzan jasotako antolamendu xehatuaren arabera, eremuan lau solairu eta beheko solairu bateko eraikin bat eraiki daiteke. Plan honetan aipatu antolamendu xehatu aldatuko da, eraikin-bolumena birkokatuta, eta guztizko eraikigarritasuna aldatu gabe. Hala, trenbide-geltokirako pasabidea zabalduko da, eta berdegune txiki bat sortuko etxebizitzaren fatxada nagusian. Hau da, egungo eraikinaren ordeztu beste bat eraiki nahi da, egungoaz bestelako antolamendu xehatu batekin.

B) Proposatutako planaren ezaugarriak aztertu ondoren, eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 31. artikularekin bat etorritik, lege horren V. eranskinean ezarritako irizpideak aztertu dira, zehazteko Planak ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta behar duen ala ez.

1.– Planaren ezaugarriak, bereziki honako hauek kontuan hartuta:

a) Planak zer neurritan ezartzen duen proiektuen esparrua: planak eremuaren hirigintza-antolamendu xehatuaren zehaztapenak ezartzen ditu, eta eraikuntza-proiektu baten bidez garatuko da. Aurkeztutako agiriak ikusita, Planak ez dauka baldintzatzailerik, besteak beste, kokapen, ezaugarri, neurri edo funtzionamenduari dagokienez, proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko legedian zerrendatutako kategorietako batekoak diren proiektuak etorkizunean baimentzeko.

b) Planak zer neurritan eragiten duen beste plan edo programa batzuetan, hierarkizatuta daudenetan barne: planaren xedea da hiri-lurzoru finkatuko lurzati txiki bateko antolamendu xehatua aldatzea. Beraz, ez da hauteman bateraezintasunik dagoenik sektore- eta lurralde-antolamendu aplikagarriekin.

c) Planak ingurumen-konsiderazioak integratzeko duen egokitasuna, batez ere garapen jasangarria sustatzeko helburuarekin: planarekin, ez da artifizialdu gabeko lurzorurik okupatuko, egungo hiri-garapenei erasango baitzaie. Horrenbestez, esan liteke Planak ingurumen-irizpideak txertatu dituela, lurzoru-okupazioa optimizatu nahi duelako, era efizientean erabilita.

Aurkeztu den dokumentazioaren arabera, energia-aurrezkia eta energiaren efizientzia lortzeko ingurumen-jardunbide egokiak baliatu eta energia berriztagarriak erabiliko dira.

d) Planarekin edo programarekin lotutako ingurumen-arazo handiak: antzemandako arazo nagusia da eremuak 500 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskua izatea, eta horrek, indarreko araudiari jarraikiz, ezarri beharreko erabilerak edo instalazioak baldintzatzen ditu, bizitegi-erabilerak barne; beraz, etxebizitza-erabileraren kota 500 urteko errepikatze-denborako uholde-kotatik gora egon beharko da. Eraikin berriaren beheko solairua garajeetarako erabiliko denez, solairua irazgaitza dela bermatu beharko da.

Ez da hauteman plana gauzatzearen ondoriozko bestelako ingurumen-arazo adierazgarriarik, betiere, besteak beste, segurtasunari eta osasunari, ingurumenari, hondakinen kudeaketari, natura-ondareari, paisaiari, kutsadura akustikoari eta urei dagokienez indarrean dagoen araudia betez gauzatzen badira ukitutako eremuarekin lotutako esku-hartzeak eta jarduerak.

e) Era berean, Plana egokitzat jotzen da ingurumen arloko Europar Batasuneko edo Espainiako legedia txertatzeko.

2.– Ondorioen eta eragina jasan dezakeen eremuaren ezaugarriak.

Planaren eremuak 707 m² inguru ditu, eta hiri-lurzoru finkatua da, natura-intereseko elementurik gabea. Lurzatian dagoen landaredia hiriko parke eta lorategietakoa da.

Kutsadura akustikoari dagokionez, ez da aurreikusten etorkizuneko hirigintza-garapenek gaudituko dituztenik Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoko helburuak kanporako.

Beraz, plana garazetik eratorriko diren efektu nagusiak egungo eraikinaren eraipen-lanak eta eraikin berriaren urbanizazio- eta eraikuntza-obra izango dira (hondakinak sortzea, lur-mugimenduak, makinaren joan-etorria, isurketak, etab.). Horrek, jakina, eragozpenak eragingo dizkie biztanleei, emisio atmosferikoak eta zaratak areagotuko direlako.

Ingurumen-ondorioak baloratzeko, erreferentziatzen hartuko da indarrean dagoen HAPOn aurreikusitako egoera. Kontuan hartu behar da plana indarreko plangintzan finkatuta dagoen antolamendu xehatua aldatzera mugatzen dela, eta lurzati oso txikian. Beraz, ez da espero jarduketa horiek HAPOn jasotakoez bestelako inpaktu nabarmenik izatea ingurumenean.

3.– Nolanahi ere, neurri babesle eta zuzentzaileak indarrean dagoen araudiaren arabera ezarriko dira, ebazpen honetan zehaztutakoaren arabera eta, aurrekoaren aurka ez doan guztian, ingurumen-dokumentu estrategikoan eta eremua antolatzen duten planetan jasotakoaren arabera.

Uholde-arriskuari dagokionez, Planak kontuan hartu behar du 2015-2021 aldirako Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoaren araudiaren 40., 41. eta 42. artikuluetan ezarritakoa, baita Euskal

Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planeko E.2 apartatuko uholdeen babesari buruzko berariazko araudian ezarritakoa ere.

Hartu beharreko neurrien artean daude, halaber, Plana gauzatzeko proiektuen ondorio direnak; alegia, jardunbide egokien eskuliburuan jasotako neurriak hartu beharko dira obretan, lurren eta soberakinen kudeaketan, hondakinen sorkuntzan eta kudeaketan, induskatutako lurzoruen kontrolean, eta airearen kalitatearen eta kalitate akustikoaren babesean. Besteak beste, neurri hauek hartu beharko dira:

a) Obrako langileek erabili behar duten jardunbide egokien gidaliburuak gai hauekin zerikusia duten alderdiak bilduko ditu, gutxienez: lanaldiak, makineria, ahalik eta hauts eta soinu gutxien sortzea, hondakinak kudeatzea eta herritarren lasaitasunean eragin negatiboa izan dezaketen jardunak minimizatzea.

b) Hondakin eta zoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeak araututako moduan eta aplikatzekoak diren berariazko araudiek agindutako moduan kudeatuko dira obretan sortutako hondakinak, hondeaketetatik eratorriak eta ebaketak prestatzeko eragiketen ondoriozkoak barne.

c) Eraikuntza- eta eraispin-hondakinen kudeaketa arautzeko uztailaren 26ko 112/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira eraikuntza- eta eraispin-hondakinak.

d) Zornotzako Udalari eta Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaio lurzoru-kutsadura zantzuzko, Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22.2 artikulua betetzeko.

e) Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan xedatutakoaren arabera, zonakatze akustiko, kalitate-helburu eta emisio akustikoei dagokienez, obrak egitean erabiliko diren makinak egokitu egin beharko dira kanpoan erabiltzeko makinaren emisio akustikoei buruz indarrean dagoen araudian ezarritako aginduetara, eta, bereziki, egokitu beharko dira, hala badagokie, Kanpoan erabiltzeko makinek ingurumenean sortzen dituzten emisio akustikoak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan (apirilaren 28ko 524/2006 Dekretuak aldatua) eta arau osagarrietan ezarritakora.

f) Eguneko lan-ordutegian egingo dira obrak.

g) Lorategietako jardueretan, bertako biodibertsitatea sustatzeko jarduerak bultzatuko dira, jasangarritasun-irizpideak lehenetsiz jarduera horietan. Hala, natura-baliabideen erabilera zentzuzko eta efizientea bultzatuko da, espezie inbaditzaileak sartzeko arriskua murrizteaz bat. Horretarako, Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburua argitalpenean jasotako gomendioak eta neurriak erabiliko dira. Eskuliburua Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak sortu zuen.

h) Eraikingintza eta eraikuntza jasangarriago baterako behar diren ezaugarriei dagokienez, EAEko etxebizitzaren eraikuntza jasangarriaren gida dokumentuan jasotako neurriak eta ingurumen-jardunbide egokiak erabiliko dira eraikinen energia-aurrezpena eta efizientzia bultzatzeko eta energia berriztagarriak sustatzeko. Neurri horiek, gutxienez, alderdi hauetan eragin beharko dute:

- Materialak. Lehengai berriztaezinen kopurua murriztea.
- Energia. Berriztagarriak ez diren iturrien bidez sortutako energia kopurua edota kontsumoa murriztea.
- Edateko ura. Edateko uraren kontsumoa gutxitzea.

- Ur grisak. Ur gris gutxiago sortzea.
- Atmosfera. Gas, hauts, bero eta argi gutxiago igortzea.
- Barne-kalitatea. Barneko airearen kalitatea, erosotasuna eta osasuna hobetzea.

Bigarrena.– Zehaztea, bildutako zehaztapenei jarraikiz eta ebazpen honetan ezarritako baldintzak betez, ez dela aurreikusten Zornotzako «Martija» eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziak eragin kaltegarri nabarmenik izatea ingurumenaren gainean, eta, ondorioz, ez dela beharrezkoa ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egitea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen edukia Zornotzako Udalari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea. Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 31.4 artikulua ezarritakoaren arabera, honako ingurumen-ebaluazio estrategikoak indarraldia galduko du, eta berezko dituen efektuak sortzeari utziko dio, behin Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta lau urteko gehieneko epean, Zornotzako «Martija» eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Berezia onartuko ez balitz. Kasu horretan, berriro hasi beharko da Planaren ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 15a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,
IVAN PEDREIRA LANCHAS.